

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2011ko abenduaren 21a. VIII. urtea. 2.328. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



M. SORCIA

→ **Edoskitzeak duen garrantziaz jabetzeko.** Tolosako Aranburu jauregian Esna-bidean talde erakusketa jarri dute Carmen Ferro Montiu emaginak eta Altzoan guraso elkarteak. Argazkiak, ilustrazioak, margolanak eta ikus entzunezkoa topatuko ditu bisitariak. Horrez gain, hainbat ekitaldi izango dira bertan erakusketa dagoen artean; besteak beste, edoskitze saioak antolatuta ditzute, eta gaur izango da lehenengoa. ◊ 4

Eskualdeko hainbat gaztek bat egin dute Egin Dezagun Bidearen aldarriekin

«Gazte indarrez, presoak etxera ekarri arte», ez dutela deskantsurik hartuko diote, eta dei egin dute mobilizazioetan parte hartzeko ◊ 3



Gazteek eman zuten prentsaurrekoaren une bat. I. URKIZU

Bi proiektu bultzatu nahi ditu Laskorain ikastolaren Merkatu Txikiak

Indiara eta Saharara bideratuko dute aurten lortzen duten dirua; hilaren 26tik urtarrilaren 8ra bitarte izango da zabalik Tolosako kultur etxean ◊ 2



**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**

Kondeko aldepa. 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI #BULABEA

24 H..

943 670 040



Hamaseigarrenez antolatuko du aurten Laskorain ikastolak, Merkatu Txikia. HITZA

Indiara eta Saharara bideratuko dute aurtengo Merkatu Txikiko dirua

Hamaseigarrenez antolatuko du, Laskorain ikastolak, abenduaren 26tik urtarrilaren 8ra bitarte

Itzea Urkizu

Bi proiektu bultzatu nahi ditu aurten Laskorain ikastolak, Merkatu txikian ateratzen duten diruarekin; Ibarrik Misio taldeak aurkeztutakoa da bata, eta Tolosaldea Sahararekin elkartearen proposamena, bestea.

Batetik, Indiako Arunachal Pradesh estatuko Bordumsa herrian, neska aborigenezako bizilekua eraikitzeko bideratuko dute dirua; kontsultategia eta erabilera anitzeko gela ere izango ditu. Neskatoen osasun egoera nahiz hezkuntza hobetzea da helburu nagusia, eta Laskorainek eta Ibarrik Misio Taldeak jarraituko dute proiektua.

Era berean, Sahara askeko Migel herrian martxan dagoen le-

hen hezkuntzako ikastetxean, eraikuntza lanak eta eskolako hornidura osatzeko laguntza eskainiko dute, Merkatu Txikiaren bidez. Ikastetxe honek, jada lurralde askean bizi direnen, zein aurrerantzean bertaratuko direnen hezkuntza bermatzea du helburu, eta gaur egun proiektuaren herena gauzaturuta dago; Merkatu Txikiaren laguntzaz, proiektuaren beste bi herenak amaitzea ahalbidetuko dute. Proiektu honen jarraipena egiten ari da Tolosaldea Sahararekin elkartea, eta orain arte egindako lanaren aurkezpena egiteaz gain, proiektuaren memoria ere aurkeztu dute.

Laskotain ikastolak antolatutako Merkatu Txikiak, ordea, Emaus elkarteari ere luzatzen dio eskua; armairuak, sofak eta bestelako altzariak biltzen dituzte. Emaus fundazioak hauek jaso, konpondu eta berriro salgai jarritzen ditu.

Etxeko altzariak Emaus elkar-teari eman nahi dizkion edonork, 943 4598 74 telefonora dei egin dezake.

Urteroko moduan, Laskoraingo arduradunek Tolosaldea denda, taberna, lantoki, finantza erakunde nahiz gainerako elkar-teara jo dute, Merkatu Txikian salgai jarriko dituzten tresna, jostailu, jantzi, liburu nahiz bestelako laguntza jasotzera.

Horiez gain, ordea, herritarrek ere beren materiala eskaintzeko aukera izango dute, urtero bezala. Gaur da azken eguna, Laskorain ikastolan bertan eta Arostegieta kaleko Txirrita lokaleramateriala eramateko, 18:00etatik 19:00etara; abenduaren 23an, berriz, kultur etxean bertan ere jasoko dituzte jendeak ekarritakoak. Azkenik, salmenta egunetan bertan ere eraman ahal izango dira arropa, tresna, altzari eta antzekoak.

'Traste zahar, amets berri'

Traste zahar, amets berri izango da aurtengo Merkatu Txikiko leloa, eta datorren abenduaren 26an hasita, urtarrilaren 8ra bitarte izango da zabalik, Antonio Maria Labaien kultur etxeko aretoan. Goizez, 10:00etatik 13:00era bitarte joan ahal izango da, eta arratsaldez, berriz, 17:00etatik 20:00etara irekiko dute.

Baloreak zabaltzeko modua

Merkatu Txikia, Laskoraingo ikasleekin elkartasuna lantzeko modua dela azaldu dute ikastolako arduradunek: «Inguruan ditugun arazo sozialak ikasgeletara eramatea eskatzen digu, eta heziketa prozesuan ikuspegi gizatiarra eta soziala barneratzea garrantzitsua da». Antolatzaileekin harremanetan jartzeko, 943 67 44 28edo 943 69 71 22ra deitu behar da.

30 urte betetzen ditu gaur, Oria txarangak

1981. urteko San Tomas egunean egin zuten lehen emanaldia, Donostia, Euskal Billera elkartearekin

I. Urkizu

Gaurko egunez, duela 30 urte hasi zen Oria txaranga kalez kale. San Tomas egunean, Euskal Billera elkartearekin atera ziren Donostiako jaia girotzera, eta urtemugaren harira, 1981eko abenduaren 21 hartako jarduerara bertsuak antolatu dituzte gaurko ere. Horrela beraz, Donostiako alde zaharrean barrena ibili ondoren, bazkaria egingo dute txaranga kideek.

Oria txaranga Los Politos fanfarearen inguruko lagun batzuek sortu zuten. Gipuzkoako eta inguruko herrietako festak alaitzeko helburuz, txaranga berria sortu zuten Tolosa, Andoain eta Lasarteoko musikariek; Oria-

ko bailaratik dator kio, beraz, txaranga izena.

30 urtetan asko izan dira txaranga jo duten musikariak. Gaur egun, bederatzi kidek osatzen dute taldea: Ramon Amonarrirek kaxa jotzen du; J. Karlos Andueza bonboarekin aritzen da;

Urtemuga ospatzeko kalejira eta bazkaria egingo dituzte gaur, Donostian

Gaur egun, Tolosa inguruko bederatzi musikariek osatzen dute Oria txaranga

Migelinek txindatak eta tronpeta jotzen ditu; bonbardinoarekin R. Artola aritzen da; Antxon Aizpuruak jotzen du tronboia; Aitor Etxaluz eta Jokin Mendizabal txaranga tronpeta joleak dira, eta; Josean Eiturak jotzen du saxofoia, eta Joseja Garciak helikoia.



Oria txarangak orain gutxi ateratako argazkian. HITZA

→ Laburrak

Ikastaroa langile eta langabetuentzat

HEZKUNTZA › Tolosaldea GLH Institutuak *Fabrikazio mekanikoko produktuen adierazpen grafikoa* izeneko ikastaroa eskainiko du. 40 orduko ikastaroa datorren urtarrilaren 10ean hasiko da. Oraindik izena emateko aukera dago, eta langabeak zein langileek partehar dezakete. Ikastaroa doakoa izango da, eta 943 65 11 47 telefonora deitu behar da izena emateko.

Iturriza elkarteko mus txapelketa

GIZARTEA › Datorren abenduaren 28an, Iturriza elkarteko mus txapelketa izango da, elkartek San Juan kaleko 2. zenbakiko 1. solairuan duen egoitza berrian. 10:30ean hasita, lau eta zortzi erregetara jokatu dute, mus azkarrean; izena ematen duen jende kopuruaren arabera, kanporaketak antolatuko dituzte arduradunek. Iturriza elkarteko kideek parte hartu ahal izango dute, aurrez izena emanda. Hilaren 26ra bitarte egin daiteke izena ematea, elkartearen egoitzan, 10:00etatik 12:00etara.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ **Laburrak****Ezker abertzaleak, batzar irekia Larramendiri buruz**

TOLOSA › Larramendi kaleko lurperatzearen inguruan batzar irekia egingo du ezker abertzaleak, gaur, 20:00etan, kultur etxean. Larramendi kalearen lurperatzearen gainean, iraganean eta gaur egun ezker abertzaleak mantentzen duen jarrerari buruzko «informazio okerrak eta salaketak» azken aldian prentsan ezagutzera eman direla diote. Horri buruz informatu eta eztabaidatzeko bilkura deitu dute.

Gaur hasiko dira eraisten Berazubiko Haur Eskola

TOLOSA › Gaur eta etzi bitarte aurreikusita dago Berazubiko Haur Eskolaren eta ondoko etxebizitzaren eraispina, Tolosako Udaletik jakinarazi dutenez. «Nahiz eta saiatu inguruko bizilagunei ahalik eta afekziorik txikiena eragiten, lan hauek direla medio hainbat neurri hartu behar izan dira, beti ere herritarren segurtasuna bermatzera bideratuta», gaineratu dute. Horrela, egun hauetan itxita egongo da MJ Iraola etorbidea eta Kondeaneko Aldapa lotzen dituen oinezkoen pasabidea, hau da, eskailerak.

Udala: «AHTaren obrakoak dira gauetako leherketak»

TOLOSA › Tolosako Udalak jakinarazi duenez, «azken egunotan herrian entzuten diren leherketak AHTaren eraikuntzaren ondorio dira». Leherketa horiek goizean eta gauean entzun ohi dira eta Urkizu aldean burutzen ari diren tuneleko lanek eragindakoak dira. Leherketak «herritarrengan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten» salatzeko ari da Tolosako Udala, eraikuntza enprekin ordutegiak adostu nahian. Edo nola, «herritarrek une oro informatu edukitzeko konpromisoa beretsi» nahi du udalak, bere eskumenetik kanpo dauden eraikuntza lanak izan arren.

«Gazte indarrez, presoak etxera» aldarrikatu dute

Tolosaldeko gazteek bat egin dute Egin Dezagun Bideatik bultzatzen ari diren «dinamika eta aldarriekin»

Imanol Garcia

Tolosaldeko hainbat gaztek Egin Dezagun Bideatik bultzatzen ari diren «dinamika eta aldarriekin» bat egiten dutela azaldu dute. Eta honekin batera, eskualdeko gazteak eguberrietan burutuko diren «mobilizazioetan parte hartzer» gonbidatu dituzte.

Eguberrietan izango diren mobilizazioen berri astelehen iluntzean eman zuten hainbat gaztek, prentsaurreko batean. Bertan «gatazkaren ondorioak zuzenki



Gazteek mobilizazioen berri eman zuten prentsaurrekoan. I. URKIZU

gehien sufritu dituen kolektibo» gazteena dela azaldu zuten, eta horregatik euren leloa betez, «gazte indarrez, presoak etxera» ekarri arte, ez dutela «deskantsurik hartuko» azpimarratu zuten. Era

berean, «Euskal Preso Politikoen Kolektiboek erakutsi duten indarrak eta duintasunak, harrotasunez» betetzen dituztela gaineratu zuten. Honela, Eguberrietan euren babesa erakutsiko diete.

**Gutuna****Gure txanda da**

Ama izatearen sentimenduak eraman nau boligrafoa eskutian hartzeri eta, amorruek eta haserrearekin lotsa guztiak kendu dizkidatenez, idatzi hau argitaratu ateratzera ausartu naiz.

Nire alaba espetxean dago. Espetxeetan 700etik gora dauden euskal preso politikoetako bat da. Gertakari hori nire bizitzaren errota da, eta den-dena baldintzatzen du. Astea joan eta astea etorri, berarengandik banantzen nauten 950 km horiek nola egingo ditudan pentsatzea da nire lehentasuna, egia esan garraibide publikoek ere ez baitute gauza asko errazten.

Egiteko horretan jartzeko dugu maitasun eta elkartasun guztian pentsatzen dudana baita, bihotza samurtzen zait eta emozioak hartzen nau. Izan ere, abian jartzeko gara asetero-astero, borondate izugarri

eta salbuespenik gabe, batez beste 700 km egin eta gure jendearekin egon ahal izateko. 45 minutu izaten dira eta, onenean, ordu eta erdi. Denbora gutxi da! Baina zentzumen guztiak martxan jartzen ikasi dugu, denbora tarte labur hori ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Iritsi da ordua, amaitu da bisita, eta nire barruan, sentimenduak borrokan: «Indartsu dago!»; pentsatzen dut. «Berak badaki zergatik dagoen!». Baina esaldi horiek beste galdera batzuk sortzen dizkidate aldi berean: Zergatik itzuli behar dut bakarrik? Zergatik etorri behar dut hain urrutiraino nire alaba ikustera? Zergatik dago hemen? Etxean hain handia izanik haren beharra eta utzitako hutsa, hain handia izanik bere herriri, bere jendearekin diezaiokeen ekarpena?

Mendean gaituzten gobernu

horiek, ordea, bizkarra ematen diote merkantilizazioa ez den beste edozein baliori, gorazarre egiten diete espekulazioari eta bankeroei, gure gaitz guztien salbatzaileak balira bezala. Eta nire ustez, nire alaba bezalako pertsonak, ausartak, esku-zabalak eta idealistak, erreferente izan behar dute, gizarte osasuntsu eta zintzo bat lortu nahi badugu.

Esan dezaket, lekuko bainaiz, gogo eta ahalegin guztiak jartzeko dituztela Euskal Herriak legitimoak dituen askatasuna eta demokrazia lortzen laguntzeko eta Euskal Herri hobetoago baten alde lan egiteko, espetxean oso-oso bitarteko gutxi badiutze ere. Horrek ematen die zentzua, hain zuzen, egiten dituzten eginahal guztiei eta askatasun faltari. Eta, jakina, erabat ziur daude herriak lortuko duela espetxeetako ateak irekitzea.

Gure herriak aterako gaitu he-

mendik. Azken aldian, esaldi hori dabilkit buruan bueltaka, eta haiekin guztiakin erantzukizun eta konpromiso bat dugula adierazten du. Gure presoak etxean nahi eta behar ditugulako.

Gure txanda da! Eta hor egon behar dugu, helburu horretan denon indarrak bilduz. Eta ilbeltzaren 7an, konpromiso bateratu horren erakusgarri izango da Bilbo. Askok izan behar dugu gure aldarria Madril eta Parisen entzun dadin: horretarako, gutako bakoitzaren ahotsa ezinbestekoa da.

Ilbeltzaren 7an ikusiko dugu elkar Bilbon. Zuzi, lagun eta herritarro, konfiantza hori errealitate egiten parte har dezazuen animatzen zaituztet, bai ilbeltzaren 7ko ekitaldietan, bai urrekoetan eta bai ondorengoeetan.

■ **Trinidad Miranda Funes.** Jone Lizano Miranda euskal preso politikoren ama.

↓ **Mobilizazioak****ABENDUAK 24, LARUNBATA**

- **Eskualdean.** Goizean, kantari aterako dira eskualdeko herri guztietan.
- **Tolosa.** 18:45ean, manifestazioa, Trianguloatik.
- **Villabona.** Manifestazioa 19:00etan, Iru Aldetatik.

ABENDUAK 30, OSTIRALA

- **Eskualdean.** Azken ostirale-tako ohiko elkarretaratzek.

ABENDUAK 31, LARUNBATA

- **Anoeta.** Iluntzean elkarretaratzek.
- **Ibarra.** 19:00etan, manifestazioa, plazan.
- **Zizurkiletik Villabonara.** 19:00etan, manifestazioa.

URTARRILAK 7, LARUNBATA

- **Bilbo.** 17:30ean, manifestazio nazionala.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

- **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudendan.


Ibarran: Lurdes liburudendan.

Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan, Babel liburudendan eta Elkartasun dendan.

Villabonan: Periodista liburudendan.

- **HITZAko bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**



Carmen Ferro Montiu emaginak eta Altzoan guraso elkarteak Esna-bidean talde-erakusketa antolatu dute Aranburu jauregian. Jendea «edoskitzeak duen garrantziaz jabetzea» da proiektuaren helburua.

Barrutik sortutako erakusketa

Imanol Garcia

Esna-bidean erakusketa-
ra sartzerakoan, sehas-
ka batekin egiten du
topo bisitariak. Egurrez-
koa da, polita, Juan Gorritik egin-
dako artelana. Gerturatzeko-
an, txartel bat ikus daiteke gaine-
an jarria: «Gurasoen ohean
nago». Hasierako lilura une batez
joan egiten da, eta hainbat sentsa-
zio sortzen ditu, bisitariak bere
barruan dituen iritzi eta ikuspun-
tuen arabera: «Txarra al da ba se-
haskan lo egitea?»; «erakusketa
antolatu dutenak, ni bezala, hau-
rrek gurasoekin batera lo egitea-
ren alde daude»...

Erakusketa indartsua da eta ez
du inor epel uzten, gaia ez baita
edonolokoa: edoskitzea, bularra
ematea. Esnea bera bezala, barru-
tik sortutako lana da. Talde-er-
akusketa da gainera, jende ugari-
k parte hartu baitu, eta horren adi-
bide dira geletako batean proiektu-
areak erakusten dituen 250etik
gora argazkiak. Anitza da, argaz-
kiez gain, bideo bat, ilustrazioak,
margolanak, eskulturak, libu-
ruen eta haurrentzako txokoa di-
tuelako. Bizirik dago, erakusketa
bertan dauden elementuak sor-
tzen duten emozioez gain, hain-
bat ekitaldi prestatu baitituzte
antolatzaileek, erakusketak irau-
ten duen bitartean.

Abiapuntua

Carmen Ferro Montiu emaginak
eragin zuen proiektua, hainbat
urtetan edoskitzearen alde egin-
dako lanean beste pauso bat emate-
ko asmoz. Bularra emateari bu-
ruzko argazki erakusketa bat
egin nahi zuen, eta bere edoskitze
taldeetan daudenei eta egon dire-
nei deialdia luzatu zien, une bere-
zi hori islatzen duten argazkiak
biltzeko. Tolosaldean orain gutxi
sortu den Altzoan guraso elkarte-
ko kideak laguntzeko prest azal-
du ziren.

Argazki erakusketa bezala hasi



Lore Agirrezabalen (ezkerrean) eta Maddi Soroaren (eskuinean) argazkiak ikus daitezke erakusketan.



Hainbat familie emandako argazkiak daude ikusgai. Eskuinean, Maite Gurrutxaga amezketarraren obra.



zuen bidea proiektuak, eta pixka-
na ideia zabaltzen joan zen. Bide-
bat egitea pentsatu zuten, bula-
rra emateari buruzko bizipenak
jasotzeko, eta horrela sortu da
Zenbat buru... hainbat tiitiburu
ikus entzunezkoa. Argazki
proiektioaz gain, Maddi Soroa,
Lore Agirrezabal eta Monika
Mauri argazkilarien lanak zintzi-
likatu dituzte. Ilustratzaile ezagu-
nek parte hartu dute ere, erakus-
ketarako espresuki egindako
obekin. Beste hainbat artelan
ikus daitezke, tartean eskualdeko
Naiara Delgado, Idoia Elosegia eta
Txitxi Orbegozok eginikoak.

Edoskitzea argazkitan erakuste-
ko asmoa zuen erakusketa, sor-
men iturri bihurtu da.

Erakusketaren espazio nagusia,
erakusketaren parte izateaz
gain, haurrentzako egokitu da:
jolasteko txoko bat dute, tartean
haur liburutegiak utzitako libu-
ruekin. Gurasoei zuzendutako argi-
talpenak ere ondoan daude, es-
kura.

Espazio nagusi horretan izan-
go dira erakusketak irauten duen
bitartean antolatu dituzten eki-
taldiak: hitzaldiak, ipuin konta-
ketak eta edoskitze saioak. Azken
horietan, «edoskitzearekin lotura

duen edo izan dezakeen edozein
bertaratzeko txokoa izango da,
garai honetan emakumeak iza-
ten dituen gorabehera anitzak
partekatzeko, poz eta minak el-
karbanatzeko, bakarriz ez gaude-
la konturatzeko...», azaldu dute
antolatzaileek.

Esna-bidearen helburu nagusia
Tolosaldeko biztanleak «edos-
kitzeak duen garrantziaz jabe-
tzea» da. «Halaber, emakumea-
ren rola 'aldatu' den heinean,
berau geure eguneroko bizitzan
txertatzeko klabeak lantzea ere
nahi da, elkarren arteko sosten-
guan oinarrituz».

↓ Egitaraua

ERAKUSKETA

■ **Urtarrilaren 14a arte.** Aranburu jauregian, asteartetik larunbatera, 17:30etik 20:30era.

EKITALDIAK

Saio guztiak 18:00etan hasiko dira.

- **Abenduak 21, asteazkena.** Edoskitze saioa.
- **Abenduak 22, osteguna.** *Amaren elikadura edoskitzean* hitzaldia, Amaia Perales elikaduran adituaren eskutik.
- **Abenduak 23, ostirala.** Itziar Saenz de Ojer ipuin kontalaria.
- **Abenduak 27, asteartea.** Continuum kontzeptuari buruzko hitzaldi-tailerra, Meitai Maitie-ren eskutik.
- **Abenduak 28, asteazkena.** Edoskitze saioa.
- **Urtarrilak 3, asteartea.** *Amaren egoera emozionala edoskitze garaian* hitzaldia, Nerea Mendizabal psikopedagogoa-ren eskutik.
- **Urtarrilak 4, asteazkena.** Edoskitze saio berezia. Tolosan edoskitze lekuak aukeratzeko baliatuko da.
- **Urtarrilak 7, larunbata.** Itziar Saenz de Ojer ipuin kontalaria.
- **Urtarrilak 10, asteartea.** *Gorputzaren zaintza edoskitze garaian* hitzaldia, Olatz Basterretxea osteopataren eskutik.
- **Urtarrilak 11, asteazkena.** Edoskitze saioa.
- **Urtarrilak 14, larunbata.** Itziar Saenz de Ojer ipuin kontalaria. Ondoren, erakusketa ixteko, bularramate kolektiboa.

Tolosa Aranburu jauregian dago zabalik erakusketa, urtarrilaren 14a arte. Bertara joatez gain, proiektuaren berri www.esnabidean.blogspot.com helbidean jaso daiteke.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Udalarekin euskaraz, zure eskubidea delako!

TOLOSAKOA UDALA

Hizkuntza politikaren eta Tolosako udalaren...
Tel. 943 65 1133 www.tolosakoa.net

Gutunak

Gabon zoriontsuak!

Eguberrietan, etxekoekin egiten diren ospakizunak direla eta, etxeko lanen kopurua areagotu egiten da. Gure gizartean batez ere, emakumeek egiten dituzte lan horiek eta, ondorioz, festa egun horietan handitu egiten da emakumeen lan zama. Eta ez dakigu egoera horrek zergatik jarraitzen duen horrela. Inon ez dago idatzita lan horiek emakumeak egin behar dituenik, emakumeak etxetik kanpo egiten badu lana; ezta lana etxean egiten badu, atsedean egunik eduki behar ez duenik ere.

Horregatik, gure elkarteak gonbita egiten die horrelakorik

egiten ez duten gizonezkoek Gabon jaietan etxeko lanetan parte hartzea. Izan ere, etxea bere eta bere semeena ere bada, eta ez emakumeena bakarrik. Eta etxeko lanetan semeek ere parte har dezatela, beren adinaren neurrian.

Eta urtea bukatzean, urte berriarako desioen barruan, sor dabila, borondate oneko gizonengan, askoz eta etxe eta famili giro solidario, parte hartzaile eta zuzenagoa, hau da, etxeko guztientzat zoriontsuagoa.

■ **Berdinbide berdintasunerako eta genero indarkeriaren kontrako gizonezkoen elkarte.** Tolosa.

Irudia ◊ Leitza

**XALTO SARIKETAKO TXAPELA AURITZERA**

Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatuta, Andres NARBARTÉ Xalto sariaketaren hamaikagarren edizioa jokatu zen iragan larunbatean Goizuetan. Nafarroako bertsolari berriei zuzenduriko ekimen

honetan hamabost bertsolarik hartu zuten parte, eta horietatik lau leitzarrik. Bi leitzar arratsaldeko finalera sailkatu ziren, baina azkenean txapela Aimar KARRIKA auriztarrik jantzi zuen. HITZA



Bi herritar aldizkaria irakurtzen, aurkezpen egunean. HITZA

‘Panpanoziri’ aldizkaria kalean da

Aresoko historia, bitxikeriak, elkarrizketak, datuak, argazkiak... jasoko ditu bi urtetik behin

I. Terradillos Areso

Iragan abenduaren 3an ikusi zuen argia Aresoko aldizkari berriak. *Panpanozirik* bi urtean behin Aresoko berri emango du, bertako historia, bitxikeriak, pasadizoak, datu interesgarriak edota argazkiak erakutsiz.

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuaren ekimenez jaio da argitalpen berria. David Anaut Euskara Zerbitzuko arduradunak azaltzen duenez, «Aranok, Goizuetak eta Leitzak badute euren aldizkaria, eta Areson hutsune hori zegoenez, berri bat sortzea proposatu genuen». Bada, hurrengo pausoa aldizkariari izena ematea izan zen, eta hori herritar guztiei parte hartzeko deia luzatuta egin zuten: «36 hitz jasoko genituen, eta *Panpanoziri* aukeratu genuen, izen hori oso herrikoa baita».

5-6 lagunez osaturiko lantaldeak egin du aldizkariaren lehen alea. «Lantaldea irekia da, hau da, nahi duen herritar orok har dezake parte; Aresoren inguruko gaiekin zerrenda osatu genuen, hortik aukeraketa egin, eta ondoren banatu», azaltzen du Anautek.

2013an bigarren alea

Bi urteren buruan bigarren alea jaioko da, eta orduan ere herritarrek euren etxeetan izango dute 28 orrialdez osaturiko herriaren berri ematen duen argitalpena.

Irudia ◊ Ibarra

**EKUADOR, HONDURAS ETA INDIAREN ALDE**


Ibarrik Misio Taldeak antolatuta, etzi bitarte Merkatu Txikia zabalik egongo da San Bartolome Plazan dauden Parrokiko lokaletan. Goizez, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez 17:00eta-

tik 20:30era bisitatu ahalko da. Bertan biltzen duten dirua Ekuador, Honduras, eta Indian dituen proiektuetara bideratuko dute. Herritar guztiak animatzen dituzte parte hartzera. ir.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat emanaldi bakoitzerako **2 sarrera pare** ditu



Poxpolo eta Konpainia

Abenduak 28 - Asteazkena
16:30ean eta 19:00etan
Tolosako Leidorren

hitza

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**

Olentzero eta Mari Domingi ez dabilta urruti

Larunbateko egun handia prestatzeko lanetan, gaur hasiko dira Olentzero eta Mari Domingi

Eneritz Maiz / Asier Imaz

Olentzeroren eta Mari Domingiren gau magikoa abenduaren 24ean, larunbatean, izango da. Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan, ongi etorri beroa egiteko azken prestaketak egiten ari dira. Egun seinalatua berotzeko, gaur bertan, hainbat ekitaldi aurki daitezke Gabonetako egitarau oparoen.

Urtero bezala, haurrak izango dira protagonista nagusiak egun hauetan. Eurentzako ekitaldi ugari antolatu dituzte, haur parke eta guzti. Tolosan, Zerkausian edukiko dute jolastokia 2-12 urte bitarteko txikiak. Tailerrekin batera, egunero ikuskizunak edukiko dituzte bertan, hilaren 26tik 30era bitarte.

Gabon Parkea, Villabonan

Amasa-Villabonan, Oria merkatari elkarteko kideek Haurrentzako I. Gabon Parkea antolatu dute. Udalaren eta Amasa-Villabonako merkatarien laguntza izan dute egitasmo horretan. Bearzana frontoian hilaren 21ean, 23an eta 30ean goizez zabalduko ditu atea Gabon Parkeak. Hilaren 31n eta urtarrilaren 5ean, aldiz, arratsalde. 2-3 eta 4-9 urteko haurrentzat da eskaintza eta hainbat gune jarriko dituzte. Sa-

rrera 2 eurokoa izango da. Oria merkatari elkarteak tailerrak, jolasak, eskulanak, puzgarriak, meriendak... antolatu ditu parkean. Horrez gain, helduentzako, herriko merkatariak 50 euroko hiru erosketa txke eskainiko dituzte, egunero.

Villabonako Udalak ekimenarekin bat egin du, eta Galder Azkue alkateak herritar guztiak herriaren geratzera eta herriaz gozatzera gonbidatu ditu, erosketak bertan egiteko eskatuz.

Bestalde, Oria merkatari elkartetik azaldu dutenez, azken egunetan Mari Domingi eta Olentzerorekin aritu dira hizketan. Hala, Mari Domingi gaur bertan iritsiko da Villabonara, herriko eskolaren eskutik.

Elkartasun denda, Tolosan

Gabonetan, euskal preso eta iheslarien aldeko hamaika ekitaldi egin ohi dira. Aurten, herri bakoitzean sortu berri diren Egin Dezagun Bidea taldeak, ez dira atzean gelditu. Data hauetan bezaz, aldarrikapenek leku berezia izango dute Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan.

Tolosan, azken urteetako ohi-turari jarraituz, Tolosako Preso eta Iheslarien Lagunek Elkartasun Denda zabaldu dute Korreo kalean. Urtarrilaren 7ra arte egongo da zabalik, eta besteak beste, opariak erosteko aukera dago bertan. Dendaren arduradunaren esanetan, «elkartasuna eman eta dispertsioaren gastuei aurre egiteko, eta laguntza ekonomikoa lantzeko modu ezin hobea da bertan erosketak egitea».



Tolosako Korreo kalean aurkitzen da Elkartasun Denda. A. IMAZ

↓ Gabonetako egitaraua, herriz herri...

ABALTZISKETA

■ **Hilak 23, etzi Goizez.** Olentzero eskolara joango da.
■ **Hilak 24, larunbata 09:00.** Plazan elkartuko dira kantuan ibiltzeko, herriko eskolak eta Alegiako ikasleak.

ADUNA

■ **Hilak 24, larunbata 08:00.** Muxkileko taldea kantari abiatuko da baserriz baserri.
■ **09:15.** Eskolako haurrak etxez etxe abiatuko dira. Itzuleran, Olentzerok eskolan utzitako opariak zabalduko dituzte.
■ **12:00.** Haurren hamaiketako Txulobin.
■ **Hilak 27, asteartea 17:00.** Saroa Bikandi ipuin kontalaria Elordi plazako lokalean.

ALBIZTUR

■ **Hilak 24, larunbata 09:00.** Haur eta gurasoak plazan elkartuko dira. Gazteak baserriz baserri ariko dira jubilatuei opariak banatuz.
■ **19:00.** Olentzero kalejiran abiatuko da eta udaletxeko arkupean hartuko ditu haurrak.

ALEGIA

■ **Hilak 24, larunbata 11:00.** San Juan eskolako ikasleak herrian abestuko dute.
■ **18:00.** Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Eskola aurrean egingo diete harrera. Txintxarri kantari ibiliko da.
■ **Hilak 25, igandea 11:15.** Txintxarri abesbatzak meza nagusian abestuko du.
■ **Hilak 27 eta 28 16:00.** Gabonetako pilota topaketak.

ALTZO

■ **Hilak 23, etzi 11:00.** Olentzero eskolara iritsiko da.
■ **Hilak 24, larunbata 10:00.** Altzo Azpin elkartuko dira guraso, irakasle eta ikasleak, eta etxez etxe kantuan ibiliko dira.

AMEZKETA

■ **Hilak 24, larunbata 08:30.** Preso eta iheslarien alde abesten aterako direnak plazan elkartuko dira eta baserrietan ibiliko dira. Eguerdian, Zubillaga auzoan eta Ugarten. Goikoetxearen bazkalduko dute. Arratsaldean etxez etxe ibiliko dira herrian.

ANOETA

■ **Hilak 22, bihar 19:00.** Loatzko musika eskolaren kontzertua elizan.

■ **Hilak 23tik urtarrilaren 6ra 10:30-13:00 eta 16:30-20:00.** Joxe Leon Larrantek azken bost urteetan eskuz egindako egur lanen erakusketa, Hozpel kaleko udal lokalean.
■ **Hilak 24, larunbata 16:30.** Auzoz auzo abesten aterako dira, lehen aldiz.

■ **18:00.** Olentzero eta Mari Domingi 18:00etan Isastitik irtengo dira. Plazan egingo zaien ongi etorrian Loatzko Musika Eskolak, Gazte Asanbladak, Anoetako Dantza Taldeak eta Egin Dezagun Bidea taldeak hartuko dute parte. Ondoren, Olentzerok eta Mari Domingi gozokiak banatuko dituzte. Argazki erraldoia aterako dute.
■ **Hilak 25, igandea 12:30.** Anoetako Txistulari taldearen kalejira.
■ **Hilaren 26tik 30era Ordu-tegiak aukeran.** Xakea. Izena emateko azken eguna hilaren 22a da, udaletxean goizez edo liburutegian arratsaldez.

■ **Hilak 26, astelehena 17:30.** Madiber Magoaren emanaldia Mikelasagasti auditorioan. Sarrera bi euro.
■ **Hilak 27, asteartea 10:30.** Txuri Urdinera irteera. Oinaren zenbakia 26tik aurrera dutenak ibil daitezke patinetan. Izena emateko azken eguna hilaren 22a da, udaletxean goizez edo liburutegian arratsaldez. Prezioa, 10 euro.

ARESO

■ **Hilak 24, larunbata 10:30.** Etxez etxe aterako dira kantari herrian barrena.
■ **18:00.** Mañenea etxeko atarira Olentzero iritsiko da eta ondoren opariak plaza zaharren banatuko ditu.

ASTEASU

■ **Hilak 24, larunbata. Goizean.** Irakasle eta gurasoak kalez kale ibiliko dira kantuan. Eguerdian Olentzero etorriko da pilotalekura.
■ **18:30.** Euskal preso eta iheslarien aldeko kalejira Olentzerorekin, plazatik abiatuta. Ondoren, euskal preso eta iheslarien aldeko banderolaren jarriko dute udaletxeko balkoian, eta urtarrilak 7an ospatuko den manifestaldirako atxikimenduak bilduko dituzte.

BALIARRAIN

■ **Hilak 24, larunbata 14:00.** Plazan elkartu ondoren kantuan ariko dira.

BEDAIO

■ **Hilak 24, larunbata 15:00.** Baserriz baserri kantuan ibiliko dira.

BELAUNTZA

■ **Hilak 24, larunbata 15:30.** Herriko tabernan elkartuko dira herrian kantuan ibiltzeko.
■ **17:30.** Herriko tabernara Olentzero joango da, eta opariak banatuko ditu.

BERASTEGI

■ **Hilak 23, etzi 10:00.** Haurren ikuskizunaren ondoren, hamaiketako egingo dute. Jarraian Olentzero joango da eskolara, opariak banatuz.
■ **Hilak 24, larunbata 09:00.** Plazan elkartu ondoren kalejiran herrian barrena ibiliko dira. Nahi duenak Urepele Elkartearen bazkaltzeko aukera izango du; janaria norberak eraman behar du, eta postrea eta kafea Guraso Elkartearen eskutik izango dira.
■ **15:00.** Berriz ere plazan elkartuko dira kantuan ibiltzeko.

BERROBI

■ **Hilak 24, larunbata Goizez.** Herriko ume eta gurasoak etxez etxe ibiliko dira gabonetako kantuak abestuz.
■ **18:00.** Olentzero iritsiko da herria.

HERNIALDE

■ **Hilak 24, larunbata 09:00.** Bentatik hasien dira abesten eta herri osoa zeharkatzen dute goiz eta arratsalde.
■ **19:00.** Olentzero frontoira iritsiko da.

IBARRA

■ **Hilak 23, etzi Arratsaldean.** Gaztainak eta banderolak salgai jarriko dituzte herriko sarreran. Banderolak balkoietan zintzilikatzea eskatu dute.
■ **Hilak 24, larunbata. 09:30.** Gosaria Subegin. Ondoren, kantatzera irtengo dira preso eta iheslarien alde. Arratsaldean Tolosako manifestaziora joango dira.
■ **12:00.** Uzturpe ikastolako ikasle, guraso eta irakasleak kalez-kale abesten aterako dira. Eguerdian plazan elkartuko dira. Besteak beste, gaztainak jateko aukera egongo da.
■ **18:30.** Olentzero musikarien laguntzarekin eta bere laguntzaileekin batera Izaskun auzotik abiatuko da.
■ **19:00.** Euskal Herria kalea zeharkatuz Olentzero plazara iritsiko da. Bertan, haurrak Olentzerorekin egoteko aukera izango dute.
■ **Hilak 27, asteartea 11:00.** *Huntz korapiloa* emanaldia kultur etxean, 3-9 urte bitarteko haurrentzat.



Haurrekin egoteko eskolara egingo die bisita Olentzerok, Altzon. HITZA



Haurrentzako I. Gabon Parkea antolatuta dute Villabonan. A. IMAZ



Abaltzisketan udaletxeko arkupetan jarri dute Olentzero. E. MAIZ

↓ ...Gabonetako egitaraua, herriz herri

IKAZTEGIETA

■ **Hilak 24, larunbata.**
08:30. Kiroldegiko aparkalekuko aterako dira eta kantuan ibiliko dira lehenik baseriz baserri, eta gero herri gunean. (Amnistiaren aldeko Olentzeroa).
18:00. Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera. Opariak banatuko dituzte plazan.

IRURA

■ **Hilak 21, gaur**
11:00. San Tomas eguna gaztelekuan.
 ■ **Hilak 23, etzi**
17:00-19:00. Gazteleku Egu-berrietarako atontzea.
17:30. Haurrentzat filmea kulturunea.
 ■ **Hilak 24, larunbata**
11:30. Hamaitakoa plazan haurrentzat.
 ■ **12:00.** Mari Domingi etorriko da Olentzerorentzat gutunak jasotzera. Gogoratu, ekarri erabiltzen ez duzun jostailu hori.
 ■ **17:00.** Txokolatada.
 ■ **18:00.** Olentzeroren etorriko da Errekaldeko bidetik opariak banatzera. Jaiotza biziduna, San Migel plazan.
 ■ **Hilak 26, astelehena**
17:00. 2-12 urte bitarteko haurrentzat jolasez beteriko arratsaldea ludotekan.
 ■ **Hilak 27, asteartea**
15:00. Gaztelekuko gazteak Txuri Urdin izotz jauregira irteera. Izena aldeaz aurretik eman behar da.
17:30. Xake partidak plazan.

LARRAUL

■ **Hilak 24, larunbata.**
09:30. Herritarrek plazan elkartu eta baseriz baserri eta herri gunean, kantari ibiliko dira goiz eta arratsalde.

LEITZA

■ **Hilak 23 eta 24.**
10:00-13:00 eta 16:00-20:00. Atekabeltz gaztetxeak Truke Azoka antolatuta du, plazan. 24ean goizez bakarrik egongo dira.

■ **Hilak 24, larunbata.**
12:00. Erleta eskolatik plazara-ino kalejira.
18:30. Orantzaroaren etorrera.
19:00. Plazan Orantzaro pesta. Maimur jentilek, galtxorriek... denek bat egingo dute pestan, Orantzaro enborra sutan erretzen den bitartean.
 ■ **Hilak 27, asteartea**
16:00-20:00. Atekabeltz gaztetxeak antolatuta saskigintza tailerra gaztetxean.

LIZARTZA

■ **Hilak 23, etzi.**
17:00. Truke Azoka herriko plazan.
22:00. *Ispilua* helduentzako antzezlanak kultur gunean.
 ■ **Hilak 24, larunbata**
09:00. Euskal presoen alde kantatzera aterako dira. Gaztetxetik irten ondoren, baseriz baserri ibiliko dira.
19:00. Plazatik abiatuta herria zeharkatuko dute.

ORENDAIN

■ **Hilak 24, larunbata.**
09:00. Haur eta gurasoak plazan elkartuko eta baseriz baserri kantuan ibiliko dira goizean zehar.

OREXA

■ **Hilak 24, larunbata.**
15:00. Plazan elkartuko dira herrian kantuan ibiltzeko.

TOLOSA

■ **Hilak 24, larunbata**
10:00. Presoen eta iheslariaren alde kantari aterako dira Trianguloatik, Olentzerorekin.
17:30. Olentzero eta Mari Domingi Izaskun auzotik jaitsiko dira. Plaza Zaharretik Gorriti Plazara joango dira, eta hemen-dik Euskal Herria plazara. Hemen lehen etenaldia egingo dute. Ondoren, Zerkausiara joango dira, haurrekin elkartzera. Ibilbide guztian zehar, herri hainbat talde eta eragilek ongi etorria egingo diete Olentzero eta Mari Domingiri.

18:45. Gabonetako manifestazioa Trianguloatik.
 ■ **Hilaren 26tik 30era**
11:00-13:00 eta 16:30-20:00. Haur parkea Zerkausiaren, doan.
12:00. Haur parkearen barruan egunero ikuskizunak eta tailerrak. Azken honetarako izen ematea Topic-en edo 943 65 04 14 telefonon.
17:00. Gazte topagunea zabalduko dute, 12-16 urteko gaztetxoentzat, aisialdi eskaintza ugariarekin.

VILLABONA

■ **Hilak 21, 23 eta 30ean**
16:00-18:00 edo 18:00-19:30. Haurrentzako I. Gabon Parkea Bearzana frontoian.
 ■ **Hilak 21, gaur**
09:30. Jesusen Bihotza ikastolara Mari Domingi joango da, haurrekin egotera.
10:00. Fleming eskolara joango da Mari Domingi.
 ■ **Hilak 24, larunbata**
Goizez. Jaiotza biziduna Zentro parean, Jesusen Bihotza Ikastolakoen eskutik. 10:30ean, Zentrotik eta Txerminetik abiatuta, ikasle eta irakasleak herrian ibiliko dira kantuan. 11:30ean, Jaiotza Bizidunaren aurrean elkartuko dira.
Goizez. Preso eta iheslariaren aldeko Olentzeroa kalez kale ibiliko da.
17:45. Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria Otsabin. Dantzariak, musikariak, abesbatzako kideak, bertsolariak nahiz herritarrek hartuko dute parte Errebote plazara bitarteko kalejira. Oria merkatarik elkarteko gaztainak jarriko dituzte parte hartzaileen artean banatzeko.
19:00. Giza katea Iru Aldetatik abiatuta.

ZIZURKIL

■ **Hilak 24, larunbata.**
12:00. Goizean kantuan ibili ondoren, eguerdian Urkamendi Elkartean elkartuko dira hamaitakoa egiteko. Ondoren, Olentzerori eskaerak egingo dizkie.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Tolosan pisua alokatzen da. Interesatuak deitu 635 706843 telefono zenbakira.

Iragarki laburrak. Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn iragarri labur bat jarri nahi baduzu, deitu 943 65 56 95 telefono zenbakiraedo Tolosako bulego-erori.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

MARI KRUZ ETXEZARRETA GALDOS

Arantxa Rezusta gure lankidearen ama

*Une latz hauetan
bat egiten dugu
famiaren
saminarekin*





≈ 16°
≈ 11°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	15°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Laskorain abesbatza-
ren Eguberrietako kontzertua
gaur, 20:00etan Sakramentino
elizan.
- **Tolosa.** Esna-bidean erakus-
ketaren barruan gaur, edoskitze
saioa 18:00etan Aranburun.
Esna-bidean talde-erakusketa
urtarrilaren 14a bitarte ikusi ahal
da Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Ezker abertzaleak La-
rramendiko lurperatzeari buruz-
ko batzar irekia egingo du gaur,
20:00etan kultur etxean.
- **Autobusak.** Urtarrilaren 7an
Bilbo, euskal presoen eskubide-
en alde egingo duten manifes-
taziora joateko autobusak an-
tolatu dituzte. Berastegin, Be-
rrubiko eta Elduaingo herriekin
batera antolatu dute, eta izena
emateko epea hilaren 30an
amaituko da. Urepele elkarte-
an, udal etxean eta udal talde-
koei esanda eman daiteke izena.
Eta Leaburu eta Gaztelutik ate-
rako den autobusean izena
emateko, Leaburukoek 616 84
97 22 telefono zenbakira deitu
behar dute, eta Gaztelun, ohiko
lekura jo behar da.

Farmaziak

- **Tolosa.** Bronte, C.I.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Betelu.** Carrillo, A.
Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M.
San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Irudia Leitza



SAN TOMAS EGUNA OSPAZTEKO

San Tomas eguna dela eta, txis-
torra izango da jaun eta jabe
gaurkoan, eta nola ez, Donos-
tiako Konstituzio plazan zerra-
ma izango da protagonista: Fe-
lix. Felixi txerria leitza da,
Arro baserrikoa, eta jabeek
gaurko 360 kilo inguru pisatuko
zuela aurreikusitako zuten. Bestal-
de, aipatu behar da Renfek aldi-
riko trenen zerbitzua indartuko
duela Irun-Brinkola linean. Ba-
tez ere, 10:00etatik 12:00etara-
ko tartean indartuko dute tren
zerbitzua. Horiek horrela,
2.500 eserleku gehiago
eskaniko ditu aipatu orduetan,
Renfek. **JUAN KARLOS RUIZ-ARGAZKI PRESS**

**Merkataritzak
bizia
& ematen du &**



Tolosa&Co



INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako moztorroak

